



Aipatzen ez den klabea: EAJ-EH Bildu

EH BILDUK bakegintzan aurrera egiteko aurkeztu duen bide orri berriak badu barrura begirako logika bat eta badu gizarteari begira egindakoa. Barrura begirakoan, 2011tik hasitako urratsetan, eta batez ere Aieteko Konferentziaren bultzadan oinarrituta, EH Bilduk gatazkaren konponbidean jarri zituen bere indarrak.

Funtsean, hiru ardatz garrantzitsu izan ditu ezker abertzalearen jardunak harrez gero: bat, bake prozesuaren bideratzea; bi, 2011ko udal eta foru hauteskunde onorioz berreskuraturako esparru instituzional garrantzitsuan jardutea eta berriak eskuratzeko ahaleaginean sakontzea; eta hiru, prozesu soberanista elikatzea. Nola josi dena?

Bake prozesua eta esparru instituzionalean egonkortzea –ilegalizaziotik zetorren ezker abertzalea– hobetsi ziren, ETaren amaiera aldebakarrekoa euskal gizartean alde anitzeko elkarriketa prozesua bihurtuko zelakoan, edo hori lortu guran behintzat. Hiru urtetan bederen ez da lortu alde anitzeko prozesurik. Espainiako PPren gobernu erabat itxita eta erasoan da; PSE bere arazoetan murgildua eta EAJ urratsak emanez, baina presarik gabe ere. Eta euskal gizarteak aurrera egin nahi badu ere, PPren erasoak arbuiazen badira ere, “hau da bakea” gisako bat ere sustraitzen doa apurka.

Eta akaso bakea horrelako zer-bait da, baina ez guztiz, iraganeko mamuak hor izateaz gain, oraindik gatazkaren mina hor dagoelako, bereziki preso eta iheslarien bizkar, baina baita biktimenen ere, oraindik bide egokian garatzeko oinarri sendo eta partekatutako fin-

katu barik. Horretan da orain gakoa bake prozesua desblokeatzeko interes handiena duen ezker abertzalearentzat, ea nola uztartzen dituen bakearenak eta bereztzat proiektu politiko gisa garatzeko funtsezkoa den proiektu soberanista. Eta badirudi horien uztartzetik datorrela oraintsu aurkeztutako bakerako euskal bidea. Rafa Diezek joan den igandean *Berriari* emandako elkarrizketaren esaldi honek balio dezake egoera ilustratzeko: “Hari bakarra du bideak, aldaketa politikoa, eta bertan integratu behar ditugu gatazkaren ondorioak”.

LAU ESPARRU zehatzetan aurrera egitea proposatzen du joan den igandean aurkeztutako Bakerako Euskal Bideak: biktimak eta memoria, preso eta iheslariak, armagabetzea eta desmilitarizazioa. ETaren amaieran bakarrik ez, bake prozesuan ere aldebakartasuna aldarrikatzen du, euskal gizarteak egin dezala bere bidea Madril begiratu gabe.

Indar handia jartzen da armetan eta badirudi urrats handienak esparru horretan emango direla aurrerantzean.

Presoen eremuan eman daitezkeen urratsak aldebakartasunetik, batez ere presoek euskal gizarteari helarazi diezaioketen mezuarekin –autokritika–, baina giltza Espainian eratu den gobernu berriarena da. Zein ote? Lau esparruetatik gaitzena da. Biktima eta memoriaren esparruan ere ezker

abertzaleak eman ditzake pauso berriak, batez ere kalteen eta erruen onespenera dagokionez; keinu batzuk ere ikusi dira oraingo proposamenen. Giza eskubideak bermatu beharraz harago, desmilitarizazioa aldarrikapena da batez ere, beste dena aurrera ateratzean epe ertainera bidera daitekeena.

Eta aurrera egin daitekeen punturik garrantzitsua orain –lehenago ere bai– ETaren armagabetzea da. Indar handia jartzen da armetan eta badirudi urrats handienak esparru horretan emango direla aurrerantzean. Hori litzateke logikoena, gaitza izan arren aurkeztutako lau esparruetatik egingarriena delako, sinbolismo handikoa eta gaur egun euskal gizarteak bake prozesuratzeko ezker abertzaleak duen tresnarik eraginkorrena. Eusko Jaurlaritzak bere parte-hartzea eskaini zuen 2014ko amaieran eta ezker abertzaleak ez zuen ondo hartu. Orain ezker abertzaleak eskatzen du Eusko Jaurlaritzaren partehartzea. Proposamenak eta jarrerak egiazkoak badira, topatuko dira moduak.

Egiazki, bake prozesuaren klabe garrantzitsua zehatz aipatu gabe dago proposamen honetan, nahiz eta lerro artean antze-man daitekeen: EH Bilduk eta EAJk bakegintzari buruzko oinarri bateratu batzuk partekatzea behingoz eta horien ardatzean apurka aurrera egitea. Bakoitza bere gizarte eredu eta proiektu politikoan tinko, baina biak bake prozesua minimo batzuetatik elikatzen. Errail horien gainean euskal gizarteak ere eman ditzake urratsak, bestela nekez. Hori posible ez bada, ahaztu planekin, ez dira eraginkorrak izango. ■